



Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

Programaren lan plangintza

PROGRAMA: **HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK**

IKASTURTEA: **2019-2020**

1. Sarrera

Aurtengo kurtso hasieran HPBko Aholkularitzan lankide berriak falta izan zaizkigu. Iaz erretiroa zela-eta, hutsik gelditu zen lanpostu bat ez baita bete Zerbitzu Eginkizunen bitartez eta ordezkapenez bete behar izan da irailaren azken astean. Jardunaldi partzialak ere beranduago etorri dira.

Aurten beste Terapeuta Okupazional bat gehiago izango dugu Arabako Berritzeguneetan eta hau hobekuntzat hartu dugu. Baina ildo honi jarraituz, azpimarratu nahi dugu HPB aholkulari kopurua txiki geratu dela Araban. Eta horrela ezin diegula egoki erantzun Araban sortu diren eskola berriei ezta Departamenduak eskatzen dizkigun eginkizun berriei. Adibide argi bat hauxe litzateke: A01eko Arreta Goiztiarreko arduradun izendatu zen aholkulariak eskola kopuru berdina mantentzen du, eginkizun honek denbora eta egin behar handia eskatzen dion arren. Une honetan, aholkulari bakoitzak arreta eskaintzeko duen ikastetxe kopuruaren batz bestekoa 8-9koa da. Honez gain, gurekin eta gure lanarekin harreman zuzena duten profesionalak ere, orientatzaileek eta aholkulariek, urtetik urtera lan zama handiagoa dute eta ondorioz, askok lan postua hutsik uzten dute. Honek sortutako egonkortasun ezak, urtero ikastetxe askotan aholkulari/orientatzaile berriak egotea sortzen du. Honek gure lana zailtzen du.

Bestalde, errelebo kontratuak direla eta, iaz bezala jarraitzen dugu:

- Gizarte Langile lanpostu biak galtzeko arriskua aipatu beharrean gaude. Momentuz, Parlamentuak aginduta, Departamentuak Gizarte Langileen behararen ebaluazioa egin behar dute. Horren arabera, lanpostua mantenduko dute edo ez. Onartu ezinako galera bat sortuko luke horrek eta, beraz, zerbait egiten jarraitzearen beharra izango dugu.
- Terapia Okupazionalen lanpostuan tartekatzen joango diren 3 lankide izango ditugu: Carmen eta Oihana, biak lanpostu bat betez. Hirugarrena Garazi.

Taldeko eginkizunetara joz, hona hemen esanguratsuenen aipamena:

- Formakuntzaren esparruan, zenbait mintegi, ikastaro eta lan-taldean antolaketa.
- Zenbait erakunderekin burutzen den koordinazioa: Osasun, Gizarte eta beste Zerbitzu batzuetakoak.

Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

- AGT (Arreta Goiztiarreko taldea) eta AGBTko (Arreta Goiztiarreko Balorazio Taldea) taldekide izatea (Ramon eta Miren)
- Hezkuntza Saitetik jasotako argibideak jarraituz zenbait tramite burutu: NEK/ACI, eskola proposamenak, ALE-EHE eta HLEn ordutegiak,
- Hezkuntza Laguntzako Espezialisten formakuntzarako ikastaro bat antolatu Saitetik jasotako jarraibideen barruan eta ikasturtean zehar beraiekin hiru bilera ofizial egin.
- Lurralde Ordezkaritzatik heltzen zaizkigun txosten eskaerei erantzun, normalean gurasoek edo beste entitate batzuk eskatuak izaten direnak.
- Ikastetxe bakoitzeko BGko erreferentziazko Aholkulariarekin, ahal den heinean, modu koordinatuan jardutea eta informazioa trukitzea.
- IBT/CRI eta Berritzeguneen arteko koordinazioa protokolo ildoak jarraituz mantentzea.
- Berritzegune Nagusitik antolatuko diren koordinazio saioetan parte hartzea: lurraldekoak zein lurralde artekoak.
- Gure Berritzegunetan ditugun kolaboratzaileekin (TO/GL) koordinaketa eta elkarlana burutzea.
- Praktiketako ikasleak tutorizatzea: HPBko Aholkularitza eta Gizarte Langileen formakuntzarekin lotura dutenak.
- Lurralde Ordezkaritzarekin tratatzeko, aurrez 2 gai landuko dira taldean:
 - Txosten eskaerak: gehiegizko eskaerak gure ustetan, sarritan iritsi beharko ez luketenak,
 - Gela Egonkorretako eta ZIG geletarako matrikula epeak eta irizpideak.

Azkenik, gure Berritzeguneetako barruko lan-taldeetan izango ditugun ardurak aipatuko ditugu:

- HPBko koordinatzaileak: Anabel eta Larraitz.
- Arreta Goiztiarra: Ramón eta Miren
- Kalitatearen Gestio Plana hobetzeko taldea: Ramon eta Luis
- Komunikazioa eta "Irakurketa Plana": Bea

2. Ikastetxeetan aurreikusten diren esku-hartze nabarmenenak

Ikasle eta bere familiarekin esku-hartze arloan:



MD1203e	
Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen diagnostikoa, ebaluazio psikopedagogikoa eta eskolatzeko proposamenak egitea, baita aparteko baliabideez hornitzeko proposamenak ere, beti ere ikastetxeko irakasle tutore, aholkulari edo orientatzaile eta pedagogia terapeutiko edota entzumen eta hizkuntzako irakasleen lankidetzarekin kontatuz.
- Haur Hezkuntzan eskolatutako ikasleen Hezkuntza Premia Bereziak garaiz antzematea, ikastetxeak berak hala eskatu ostean.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen gurasoei eskolatzeko proposamenaren inguruko berariazko alderdiei buruzko informazioa eta orientabidea eskaintzea.
- Arautegiak ezartzen duen bezala Curriculumaren Egokitzapen Indibidual esanguratsuetarako baimena lortzeko txostenak egitea, bai eta Batxilergoan eta Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloetan salbuespenak egiteko ere, egindako egokitzapenarekin edo salbuespenarekin ados daudela adieraziz edo aldatu behar diren alderdiak proposatuz.
- HLE behar duten ikasleekin *Autonomia eta Irisgarritasuna Garatzeko Laguntza-Premiak Zehazteko Protokoloa* betetzea, urtero profesional horren beharra errebisatuz. (Aurtengo ikasturterako, aparteko egoera batean gaudela eta, jasotako orientabideak jarraituz abenduaren 20rako beteta izan beharko genituzke).

Aholkularitza arloan:

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin ari diren irakasleei aholkularitza eta norabideak eskaintzea, hain zuzen ere hezkuntza-programazioa eta ikasgelaren antolamendu-eredua ahalik eta ikaskuntza-irakaskuntza prozesu onenari egokitzeko, bai eta eskolatzeko-premia osagarriak kontuan hartzeko ere.
- Zuzendaritza-taldea eta irakasle-taldea, bereziki irakasle aholkulariak eta orientatzaileak, orientatzea hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei egoki erantzuteko, hain zuzen ere, ikuspegi inklusibo batetik ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzuteko diren berariazko baliabideen erabileraren inguruan eta ikastetxearen eremuan egin behar diren egokitzapenen inguruan.
- Ikastetxetako irakasleei aholkularitza eskaintzea hezkuntza-premia berezien testuinguruan jarritako ebaluazioa egiteko, ahalik eta muga gutxienean ikasleen garapen handiena sustatuko duten curriculum-egokitzapenak erraztearren.
- Ikasleek eta familiak jasotzen duten arreta hobetze aldera, Hezkuntza eta Osasun mentala zerbitzuen artean adostutako Kolaborazio Marko Orokorrean jasotakoa (2018/maiatza) betetzea bideratzea ikastetxeetan.

Prestakuntza arloan:

MD1203e	
Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

- Eskualdean hezkuntza-mailaren dinamizazioaz eta koordinazioaz arduratzea, baita eremu honetako irakasleen prestakuntza-planez, eta zehaztuko den hezkuntza bereziko pertsonalari zuzendutako berariazko planez ere.

Koordinaketa eta lan-taldearen arloan:

- Koordinazio eta lankidetzazko harremana ezartzea Berritzeguneko gainerako aholkulariekin eta Osasun, Gizarte eta Lan eremuetako gainerako eragile komunitarioekin, hezkuntza-premia berezien eremuan erantzun orokor bat emate aldera.
- Berritzeguneko Ekintza Plana sendotzeko ekarpenak, iradokizunak eta ekimenak Zuzendaritzari aurkeztea, barne taldeetan edo/eta Pedagogia Batzordean aztertuak izan daitezten.

Edozein arlotan:

- Bakoitzak, dagokion programan Berritzeguneko funtzioak garatzea, otsailaren 6ko 15/2001 Dekretuaren 2. kapituluan datozenak hain zuzen.
- Ikasleen hezkuntza-premia bereziei erantzutea Hezkuntza Berrikuntzarako Zuzendaritzak ezarritako norabideak jarraituz eta Berritzeguneez eskualderako antolatutako Planarekin bat etorritz.
- Hezkuntza Premia Bereziko laguntzako pertsonalarekin (ALE-EHEk, fisioterapeutak eta hezkuntza bereziko laguntzaileak) Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaritzak ezartzen dituen erlazio funtzionalak mantentzea.
- Hezkuntza berezia behar duten ikasleei bideratutako aholkularitza, heziketa eta berrikuntza lanetan genero ikuspuntua, kulturartekotasuna eta zehar balioak kontuan izatea, pertsonaren garapen integral eta orekatsua ahalbideratu eta bideratzen baitute bere dimentsio guztietan, afektiboa, kognitiboa eta soziala.
- Berritzeguneko Zuzendaritzak eskatutako zereginak betetzea.
- Idatziz eta sistematikoki aholkulari gisa burututako ekintza guztiak jasotzea, auto-ebaluaziorako nahiz hezkuntza-agintarien aldetik balorazio bat egiteko oinarri izan daitezten, baita etorkizunean gure zerbitzu honetan sartu litezkeen lankideentzako gida moduan ere.
- Arau bidez esleitutako beste edozein ardura.

3. Prestakuntza ekintzak: ikastaro eta mintegiak

Aniztasunari Erantzuteko Programen mintegia (hbsp-osagarria-ac) bigarren hezkuntzan: Xabier

ZIGetako irakasleei zuzendutako mintegia: Xabier, Lorea eta Sara



MD1203e	
Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

Aholkularientzako Mintegia: Marga

Eskolaratze Osagarriko Programaren Mintegia: Olatz

Orientatzaileentzako Mintegia: Marta

TEA duten Ikasleen ALE-EHE Mintegia: Arantxa

ALE-EHE Generalisten Mintegia: KUG taldea

ALE/EHE Gorren Mintegia: Marisol

ZEINU-HIZKUNTZAZ BALIA ZAITEZ Ikastaroa: Marisol

ZEINU HIZKUNTZAK +TZEN DU Ikastaroa: Marisol

PT Irakasleentzat zehazteke dagoen ikastaroren baten kudeaketa: Aholkulari guztiok

BARNE PRESTAKUNTZA

Guk geuk jadanik jaso edo jasoko dugun prestakuntza:

- Arreta Goiztiarra: haurren garapena eta lengoaia: Joana Acha
- Educación Inclusiva: Coral Elizondo.
- Haurren denboraldi kritikoen garrantzia (neurozientzia): Maria Jose Mas.
- Parentalidad positiva: un enfoque innovador para intervención socio-educativa desde servicios sociales: Gasteizko udala
- Gela Egonkorrak gaurkotzen: Isabel Galende.
- Moodle plataforma: Kike Clemente
- Neurodidáctica en el aula: enriqueciendo la educación.
- BIZIKASI prestakuntza II: Bea Ugarte.